

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IEKORAKO UDALA

Moreda Araba eta lekora udalen elkartean estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea

Kontuan hartu behar da idazkari-kontuhartzailearen lanpostua bete beharko dela, hutsik baitago.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak hartu ditut kontuan, eta hau

EBATZI DUT

Lehenengoa. Prozedura abiaraztea proposatzeko izenda dadila estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat lekorako eta Moreda Arabako udalen elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 49., 50. eta 51. artikuluetan jasotako moduetakoren batean.

Bigarrena. Bost egun balioduneko epea hastea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, bete beharreko lanposturako hautagaiek parte hartze eskaerak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduan eta adierazten diren agiriak erantsita.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, eta lehen-tasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen Eusko Jaurlaritzak argitaratutako merezimen-duen azken baremo orokorraren arabera ezarriko da lehen-tasuna egoera bakoitzean.

Idazkia Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da.

Hirugarrena. Hautagaien lehen-tasun ordena ezarri ondoren, eta Moreda Arabako eta lekora Udalen Elkarteak izendapena hurrenkera horren arabera egitearen aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatuko zaio aurkez dezala destino duen toki erakundearen aldeko txostena eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak, hamar egun balioduneko epean eta aipatutako artikuluen arabera.

Laugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52. eta 53. artikuluetan xedatutako prozedurak.

Bosgarrena. Udal elkartearen batzarrari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

Seigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak:

Lanpostuaren izena: Idazkaria. 3. klasea.

Lan harremana: estaturako gaikuntza duen funtzionarioa.

Eskala: estaturako gaikuntza.

Azpieskala: Idazkaritza-kontuhartzailletza.

Azpitaldea: A1.

Destino osagarria: 25.

Berariazko osagarria: 23.758,28 euro.

Hizkuntza eskakizuna: 4. Derrigortasun data: 2017ko abenduaren 31

lekora, 2026ko martxoaren 6a

Alkatea

ALFREDO ARGUIJO ECHAZARRETA

ERANSKINA

Nik, jaunak/andreak (NANA:.....; jakinarazpenetarako helbidea:; telefono zenbakia:; estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa: azpieskalakoa; gaur egun..... lanpostuan dihardut, toki erakundean, (e) k egindako izendapenaren bidez; lanpostuaren jabetze data: (edo zerbitzu aktibora itzultzeko egoeran – lankidetzan lanpostuak kentzeagatik / izendapen askeko lanpostua uzteagatik-).

Adierazten dut

Jakin dudala lekorako eta Moreda Arabako Udalen Elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela/ez duela titularrak betetzen, eta behin-behineko izendapenaren bidez, zerbitzu eginkizunen bidez edo zeregin pilaketagatik betetzeko aukera dagoela.

Betetzen ditudala lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez, hau

Eskatzen dut

lekorako eta Moreda Arabako Udalen Elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behineko izendapen bidez, zerbitzu eginkizunen bidez edo zeregin pilaketaren bidez (ezabatu soberan dagoena) betetzeko prozeduran parte hartzea.

Hauek eransten ditut:

*NANaren fotokopia.

*Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.

*Metaketako postua eskatuz gero, zereginen pilaketengatiko izendapenik ez dudala adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

....., 20.....(e) koaren(a)

Sinadura:.....